



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2021eko hirugarren hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	13
Eranskina – Aurkibideak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- EAEko familien konfiantza handitu egin da eta positiboa da, argi eta garbi
- Estatuko eta EB-27ko familien konfiantza ere hobetu egin da
- hobetze-joera orokorra da, nahiz eta emaitza ezberdinak izan




1 EAEko familien konfiantza handitu egin da eta positiboa da, argi eta garbi

EAEko familien konfiantzak suspertzen jarraitzen du, pandemian jasandako hondamenaren ondoren. Urteko hirugarren hiruhilekoan berriro ere igoera (+3 puntu) erregistratu da eta emaitzak, balio negatiboetatik aldendu, eta baikortasuna erakusten du (5).

Egoeraren ezohikotasuna zela eta, EAEko familien artean konfiantzak behea jo zuen, baina txertaketak aurrera egin eta hedatu izanak (kutsatze-olatuak izan diren arren) eguneroko jarduera normalizatzea ahalbidetu du. Horren ondorioz, murrizketak arindu, mugikortasuna berreskuratu eta/edo jarduera berriro aktibatu da (toki eta mundu mailan).

Horrek guztiak eraginda, susperraldia sendotu egin da eta EAEko familiek nabarmen nabaritu dute hau: (ia) normalizatutako udazkenaren aurrean -baina bestelako erronkei egin beharko die aurre-, EAEko familiek konfiantza berreskuratzen jarraitzen dute.


Kontsumitzailearen konfiantza. EAE



2 | Estatuko eta EB-27ko familien konfiantza ere hobetu egin da

Egoera globala denez, hobekuntzak izan duen aurrerapena ere orokorra da, baina azken emaitzak zertxobait aldatzen dira. Hala, era askotako egoerak kontuan hartu ahala (EB-27, egoera ezberdinak bizi dituzten herrialdeen kopuru handiagoarekin), konfiantza-adierazlearen balioen tarte txikiagoa da (balio maximotan eta minimotan). Hala eta guztiz ere, Europako familien konfiantza hobetu egin da (+1 puntu), baina oraindik zertxobait ezkorra (-6) izaten jarraitzen du.

Nabaria da Estatuko kontsumitzaileen konfiantza hobetu egin dela (+2 puntu), baina oraindik ere balio negatibotan (-9) dago: era askotako egoeratan oinarritutako iritziak laburbiltzen ditu; izan ere, autonomia-erkidego batzuek oraindik ere eragin (handiagoa) jasaten jarraitzen dute (Kanariar uharteak eta Balear uharteak, adibidez) susperraldian atzera geratu diren jarduerak (nazioarteko turismoa, adibidez) duten indarra dela eta.



1. III. Hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Uztaila-abuztua batez bestekoa.


3 | hobetze-joera orokorra da, nahiz eta emaitza ezberdinak izan

Aztertutako lau herrialdeetako familien artean, oro har, kontsumitzaileen konfiantza hobetu egin da, baina kontuan izan behar da haien hasierako egoera ezberdina dela, konfiantza handiago edo txikiagoarekin (emaitza positiboa edo negatiboa).

Frantziako eta Alemaniako familien kasuan (0 eta +1 puntu) balio ia aurrekoaren berdina da eta negatiboan daude oraindik ere (-6 eta -3, hurrenez hurren); bestalde, okertu egin da Herbehereetako familien konfiantza (-3 puntu) eta balio neutroan (0) geratu da. Aldiz, Danimarkako familien konfiantza ez da pandemiaren une bakar batean ere negatiboa izan eta pertzepzio baikorra sendotu egin da (7).

Hitz gutxitan esanda, familien konfiantzak hobekuntzarako joera erakusten du, baina azken emaitza bilakaeraren eta ingurune bakoitzeko abiapuntuko egoeraren baitan dago.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



1. III. Hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Uztaila-abuztua batez bestekoa.

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK

- sendotu egin da ekonomia orokorraren gaineko igurikimenen hobekuntza
- langabeziaren bilakaeraren gaineko igurikimenek hobetzen jarraitzen dute
- dena den, familiako ekonomiaren gaineko konfiantzak behera egin du
- nahiz eta aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimenak positiboak diren
- EAEko familien konfiantza suspertuz doa


4 sendotu egin da ekonomia orokorraren gaineko igurikimenen hobekuntza

Ekonomia orokorrarekin lotuta EAEko familien igurikimenez aldaketa jasan zuten bigarren hiruhilekoan, eta hirugarren hiruhileko honetan argi eta garbi sendotu da joera; izan ere, 6ko balioarekin (+4 puntu) erabat alendu dira pandemiaren aldi zailenean nagusi zen ezkortasunetik eta jada gaintu da 2018ko lehen hiruhilekoaren eta 2019ko bigarren hiruhilekoaren artean lortutako balorazioa -positiboa izan zen aldi bakarra, 2013. urtetik-.

Emaitza honetan eragina du hurrengo hamabi hilabeteotan ekonomia orokorraren egoera zertxobait edo askoz hobea izango dela uste dutenen pisu handiagoak (% 43), egoera zertxobait edo askoz okerragoa izango dela uste dutenekin alderatuta (% 27). Egoerak berdin jarraituko dutela uste dutenen proportzioa % 30ekoa da.

Igurikimen horiek bat datoz EAEko ekonomiak izandako hazkunde ekonomikoarekin (Eustat, Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak); 2021eko bigarren hiruhilekoan, % 2,2 eta % 18,6 hazi zen, hiruhileko arteko eta urtetik urterako tasei dagokienez.

Ekonomia orokorrari buruzko egoeraren igurikimenak




5 | langabeziaren bilakaeraren gaineko igurikimenez hobetzen jarraitzen dute

Langabeziaren bilakaerarekin lotuta EAEko familien igurikimenez aurrekaririk gabeko gorakada erregistratu zuten eta hirugarren hiruhileko honetan, gainera, hobekuntza-profila (+9 puntu) mantendu da, balorazioa nabarmen positiboa izanik (11).

Hamar lagunetik bostek uste dute langabezia jaitsi (% 49) edo mantendu egingo dela (% 27); aldiz, hamarretik bik soilik (% 24) diote hazi egingo dela datozen hamabi hilabeteetan. Horrela, EAEko kontsumitzaileek langabezia gutxitu egingo dela uste dute, argi eta garbi.


Igurikimen horiek EAEn erregistratutako Gizarte Segurantzako afiliazioaren eta langabeziaren emaitzekin bat datoz (961.910 eta 121.610 lagun, 2021eko maiatza-abuztua batezbestekoa) eta krisi honetako emaitza okerrekin alderatuta, suspertze bidean leudeke (946.308 eta 143.229 lagun 2020ko apirila-iraila batezbestekoa), eta pandemia aurreko mailetara (pixkanaka) hurbiltzen (971.562 eta 117.444 lagun, 2020ko urtarrila-otsaileko batezbestekoa, pandemia aurrekoa).



6 dena den, familiako ekonomiaren gaineko konfiantzak behera egin du

Familiako ekonomiaren bilakaerarekin lotutako igurikimenak ere behera egin zuten pandemian, baina ekonomia orokorrarekin edo langabeziarekin lotutako igurikimena baino neurri txikiagoan. Dena den, nahiz eta hobetu diren, oraindik ere negatiboak (-4) dira. Bilakaera eta emaitza horiek bat datoz kontsumitzaileek familiaren ekonomiari lotuta duten zuhurtzia handiagoarekin (hain zuzen ere, 2018an edo 2019an ere ez zituen balio positiboak izan).


Uneotan, kontuan izan behar dira pertsonen igurikimenak okertzen eta “beldurtzen” dituzten faktoreek duten eragina; izan ere, zuzeneko inpaktua dute familiaren gastuetan, hala nola, faktura elektrikoak izan duen goranzko joera. Hala, eta inguruneari buruz (ekonomia orokorra eta enplegua) egindako balantzea positiboa eta partekatua den arren, familiak beren egoerarekiko zuhurragoak dira. Gainera, familien errenta zenbat eta baxuagoa izan, orduan eta negatiboagoa da igurikimen hori.



7 | nahiz eta aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimenak positiboak diren

Pandemiak sortutako egoeraren ondorioz, igurikimenak (ekonomia orokorra, langabezia edo familiaren ekonomia) okertu egin dira, baina, horien artean, EAEko familiek aurreztearekin lotuta dituzten igurikimenak dira gutxien kaltetu direnak. Bistakoa denez, hobetzeko marjina txikiagoa da, baina bi hiruhilekoz jarraian positiboak izan dira (4 eta 5).

Pandemian zehar, aurrezteko igurikimenei barne hartu zuten behartutako aurrezkiak (murrizketak), baina baita zuhurtziarekin lotutakoa eta hondar-aurrezkiak ere (aisialdiko gastua mugatuta zegoen, adibidez). Aurrezkiarekin lotutako elementu horietako batzuk ez daude jada, baina, hala eta guztiz ere, aurrezteko asmoa nagusitzen da: hain zuzen ere, 2021eko hirugarren hiruhilekoan, EAEko familien % 57k aipatu du -seguru asko edo ziur- aurreztuko duela. Aldiz, -seguru asko edo ziur- ez duela aurreztuko uste dutenak % 43 izan dira.



8 EAEko familien konfiantza suspertuz doa

Bigarren hiruhilekoan inflexio-puntua egon zen EAEko familien konfiantzan eta pandemiaren eraginpean egondako lau hiruhilekotan izandako ibilbide oso negatiboa hautsi zen, baina batez ere, ziurgabetasun-joerarekin lotutakoa.

Konfiantza hobetzen lagundu dute honako hauek guztiek: txertatze-kanpainak aurrera egin izanak, “nahiko” baxua den intzidentzia-tasak (ospitaleratzean eta/edo heriotza-tasan inpaktu txikiagoa), murrizketak arindu izanak eta ekonomiaren suspertze orokorrak (baina jarduera batzuk “atzean geratu dira”).

Hirugarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza-indizean (5) eragina dute langabeziaren bilakaerarekin lotutako igurikimen positiboek (11), ekonomia orokorrarekin lotutakoek (6) eta aurrezkiarenak (5). Eraitza hauek konpentsatu egiten dute familiaren ekonomiarekin lotutako mesfidantza (-4).

Hala, EAEko familiak ari dira pandemiaren une okerrenetan jasandako kaltea gainditzen eta, aztertutako lau esparruetan, igurikimen horiekin lotutako suspertze-joera sendotzen ari dira.

Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	<u>2019</u>	<u>2020</u>	<u>IIIH-20</u>	<u>IVH-20</u>	<u>IH-21</u>	<u>IIH-21</u>	<u>IIIH-21</u>	<u>Aldea</u>	
Familien konfiantza	-2	-22	-30	-33	-32	2	5	+3	▲
Ekonomia orokorra	-6	-33	-45	-50	-48	2	6	+4	▲
Etxeko ekonomia	-2	-12	-15	-17	-16	-2	-4	-2	▶
Langabeziaren bilakaera	-4	-41	-58	-60	-56	2	11	+9	▲
Aurrezteko gaitasuna	2	-2	-4	-5	-6	4	5	+1	▶



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- prezioek gorakada bizkorra izango dutela uste da
- erosteko unearen inguruko balorazioak okerrera egin du
- aldiz, “erosketa handiak” egiteko igurikimenak hobetuz doaz
- etxebizitza edo autoa erosteko asmoa geldirik jarraitzen du
- igurikimenak hobetu izanak ez die kontsumo handiko adierazleei bultzatzen




9 | prezioek gorakada bizkorra izango dutela uste da

2021eko hirugarren hiruhilekoan, prezioen bilakaerarekin lotuta familiek egindako balorazioa are gehiago okertu da (-41, -9 puntu) eta prezioek gora egingo dutelaren ideia nagusitzen da. Izan ere, gora egin du prezioak bizkorrago haziko direla uste duten familien proportzioak (% 58, +11 puntu), behera egin du orain arte bezala igoko direla uste dutenen taldeak (% 25, -13 puntu) eta mantendu egin da mantsoago igoko direla uste dutenen taldea (% 17, +2 puntu).

Horrekin lotuta, kontuan izan behar da energiaren fakturak izan duen igoera nabarmenak eragina izan dezakeela igurikimen horietan. Abuztuan KPIak urte arteko % 3,3ko igoera erregistratu du EAEn eta Estatuan, baina energiaren eragina kenduz gero, gorakada, % 0,7 eta % 1,0koa da, hurrenez hurren. Hala, prezioek izan duten joera gorakorak EAEko familien igurikimenak berretsiko lituzke, zeinak azken urtean KPIaren bilakaera negatiboa izan dela “ahaztu” baitute.

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsonek %a)




¹ Azken 12 hilabeteetarako dagokienez.

10 | erosteko unearen inguruko balorazioak okerrera egin du

Oro har, nola baloratzen duzu gaur egungo unea, etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteari dagokionean?

Familien konfiantzak izan duen susperraldia ingurunearekin lotutako (ekonomia orokorra eta enplegua) igurikimen positiboek eta aurrezteko gaitasunak ahalbidetu dute, zeinak familiaren ekonomiarekin eta prezioen igoerarekin lotutako igurikimen ezkorrek konpentsatzen baitituzte.

Testuinguru horrek azaldu lezake erosketaren unearen balorazioak erregistratu duen bilakaera; izan ere, indizea berriro ere nabarmen da negatiboa (-16, -18 puntu) eta 2020ko antzeko balioetara itzuli da. Une hau txarra dela dioten familiek izan duten gorakada handiaren (% 34, +13 puntu) eta une ona dela diotenen taldeak izan duen jaitsieraren (% 18, -5 puntu) ondorioa da emaitza.



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez

11 | aldiz, “erosketa handiak” egiteko igurikimenak hobetuz doaz


Nolakoak uste duzu izango direla etxeko erosketak eta gastuak, adibidez, altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeko konponketak, etab., datozen 12 hilabeteetan¹?

EAEko familien artean erosketa handiak egitearekin lotutako igurikimen-indizea bi hiruhilekoz jarraian positiboa da (1 eta 2, bigarren eta hirugarren hiruhilekoak) eta 2020ko bigarren hiruhilekoaren eta 2021eko lehen hiruhilekoaren artean izandako sekuentzia negatibotik (-17, -21, -12 eta -9) aldendu da.

Hobekuntza hori oso pixkanaka ari da sendotzen (+1 puntu) eta emaitza hori erosketa handietan igoera gertatuko dela aurreratutako familiek izandako igoeraren (% 26 eta +3 puntu) eta txikiagoak izango direla uste dutenen jaitsieraren (% 17, -2 puntu) ondorio da.

Bestalde, erreferentzia orokor gisa, EAEko familien kontsumoak % 7,1 egin zuen gora bigarren hiruhilekoan² aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Hain zuzen ere, proiektzio makroekonomikoek (Eusko Jaurlaritza) urtearen bigarren zatian kontsumoa pixkanaka suspertuko dela diote.

— Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹ —




¹ Azken 12 hilabeteekin alderatuz.


² Hiruhileroko Kontu Ekonomikoak, Eustat

etxebizitza edo autoa erosteko asmoak geldirik jarraitzen du

EAEko familien % 1,1ek adierazi du etxebizitza erosiko duela, baina proportzio honek geldirik jarraitzen du. Metatutako aurrezkiak, inbertsio gisa duen erakargarritasunak edo atzeratutako erabakiek etxebizitzaren erosketa bultzatzen lagundu dute. Hala, 2021eko urtarrila-ekaina¹ artean, % 23,3 egin du gora 2020arekin alderatuta, baina 2019ko mailatik % 5,7 behera dago.



Ibilgailu bat erosiko duten familien ehunekoa zertxobait hobetu da (% 6,4), baina oraindik ere balio baxutan dago. Eskariaren ahultasun hau eragiten duten faktoreak mantendu dira (motorizazioa-fiskalitatea, erosketarako laguntza berriei buruzko zalantzak, biztanleriaren zahartzea², erosketa-ohituen edo aukeraketaren aldaketa). Datuek atonia hori bera erakusten dute: EAEn, urtariletik abuztura bitartean, 2020 eta 2019an baino % 11,1 eta % 38,2 ibilgailu berri gutxiago saldu dira.



¹ EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta).

² Etxebizitza-merkatuan (eta automobil-merkatuan) sartzen hasi dira belaunaldi urriak, 90eko hamarkadan jaiotakoak

13 | igurikimenak hobetu izanak ez die kontsumo handiko adierazleei bultza egin

Itxuraz, hirugarren hiruhilekoak geldiarazi egin du familietako inbertsio eta kontsumo handiko adierazleetan orain arte ikusitako hobekuntza-joera. Seguru asko, beren familiako ekonomiarekin lotutako igurikimenak okertu izanak (-4, -2 puntu) eragina izan du horretan, nahiz eta aurrezkiarekin lotutako igurikimenak (5, +1 puntu) sendotu egin diren. Badirudi...

- EAEko familiak alde zuzenetik hasi dira prezioen igoeraren aurrean babesten: abuztuko KPlaren urtetik urterako igoera % 3,3koa izan da EAEn eta Estatuan, baina energiaren eragina kenduz gero, hazkundea % 0,7 eta % 1,0koa izan da, hurrenez hurren.
- Erosteko ahalmena galtzarekin lotutako igurikimen hori izan daiteke erosteko unearen balorazioa baldintzatu duena; izan ere, berriro ere negatiboa (-16) da. Paradoxa dirudien arren, erosketak handiekin lotutako igurikimena oraindik ere balio positibotan (1, +1 puntu) dago.
- Azkenik, etxebizitza (ohiko bizitokia) edo automobila erosiko dutela aurrekusita duten familien multzoak egonkor jarraitzen du edo oso aldaketa gutxirekin. Hala eta guztiz ere, hobera egin dute etxebizitzaren salerosketarekin lotutako emaitzek (urtarrila-ekaina artean, +% 23,3 egin du gora 2020ko datuekin alderatuta, baina -% 5,6 2019ko datuekin alderatuta). Aldiz, ibilgailu berrien salerosketak emaitza kaxkarrekin jarraitzen du (urtarrila-abuztu artean, -% 11,1 eta -% 38,2 2020ko eta 2019ko datuekin alderatuta).

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	2019	2020	III H-20	IV H-20	I H-21	II H-21	III H-21	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-23	-20	-16	-23	-28	-32	-41	-9	▼
Erosteko unearen balorazioa	-5	-13	-10	-13	-13	2	-16	-18	▼
Erosketak egiteko igurikimenak	0	-12	-21	-12	-9	1	2	1	▶

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2019	2020	IV H-20	I H-21	II H-21	III H-21	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-2	-22	-33	-32	2	5	▲
• Estatua*	-6	-23	-26	-22	-11	-9	▶
• EB*	-6	-15	-17	-15	-7	-6	▶
○ Frantzia*	-9	-13	-14	-13	-6	-6	▶
○ Alemania*	-2	-10	-11	-11	-4	-3	▶
○ Danimarka*	--	--	1	3	7	7	▶
○ Herbehereak*	--	--	-12	-6	3	0	▼
Osagaiak: familien konfiantza. EAE							
• Ekonomia orokorra	-6	-33	-50	-48	2	6	▲
• Etxeko ekonomia	-2	-12	-17	-16	-2	-4	▶
• Langabezia	-4	-41	-60	-56	2	11	▲
• Aurrezkia	2	-2	-5	-6	4	5	▶
Beste indize batzuk. EAE							
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-20	-22	-23	-28	-32	-41	▼
• Erosteke unearen balioztapena	-5	-13	-13	-13	2	-16	▼
• Erosketak egiteko igurikimena	0	-12	-12	-9	1	2	▶
Erosketa handiak. EAE.**							
• Etxebizitza	2,1	0,9	0,9	1,3	1,7	1,1	▶
• Autoa	6,4	5,3	5,8	5,3	5,3	6,4	▶

⇒ (± 2 puntuko aldea)

* III hiruhileko datuak uztaile-abuztua batez bestekoari dagozkie.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II | euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2019	2020	IV H-20	I H-21	II H-21	III H-21	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-2	-22	-33	-32	2	5	▲
Adin-mailak							
• 25 eta 39 urte bitartean	4	-17	-34	-29	-3	10	▲
• 40 eta 54 urte bitartean	-2	-22	-33	-36	7	4	▼
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	-25	-31	-30	-2	8	▲
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-26	-33	-30	2	-3	▼
Lan egoera							
• Landuna (soldatapekoa/ norberaren konturakoa)	1	-19	-31	-32	5	9	▲
• Langabea	-8	-31	-50	-42	-11	-2	▲
• Ez-aktiboa (erretiratu, etxeko langilea, ikaslea...)	-6	-25	-31	-28	2	0	▶
Familia-unitatearen hileko errenta							
• 1.700 €-rainokoa	-13	-32	-45	-39	-12	-10	▶
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	0	-19	-31	-31	0	9	▲
• 2.800 €-tik gorakoa	4	-14	-21	-18	13	17	▲

⇒ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	III H – 20	IV H – 20	I H – 21	II H – 21	III H – 21 _p	(azkena)
BPG	-8,1	-8,1	-2,9	18,6	--	II hir.
Familien kontsumoa	-10,3	-10,6	-3,7	22,6	--	II hir.
Afiliazioa	-0,4	1,8	-0,7	1,0	-0,4	abuztua
Erregistratutako langabezia	2,3	-7,9	-2,6	-4,6	-2,6	abuztua
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	17,3	-1,1	0,3	-1,0	--	II hir.
Etxebizitzen salerosketa	37,4	-10,5	24,2	1,8	--	II hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	118,1	-17,6	-35,0	22,8	-9,0	uztaila-abuztua

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoia) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulaten da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ Consumer Confidence Indicator, dokumentu honetan aipatzen dena familien konfiantzaren indize bezala, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie.
- Abuztuaren 23tik irailaren 3ra (2021eko III. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm